

Kasta baten giltza

Anjel Lertxundi

Deia. Diario de Araba, 2004-10-05: 50.

Literatur gizonaz hitz egin behar nuke? Agian, baina aukera asko izango baititugu horretarako. Horregatik edo –eta gero eta gutxiagotan aipatzen dugun kontua da–, guztiz desagertzen ari den euskaldun izateko modu batengana doakit gogoaz: Lizardi edo Koldo Mitxelena bezalako kateatik zetorren Martin Ugalde.

Gizon apala zen, eraman onekoa, samurra: halaxe ezagutu genuen guztiok. Baina ia galdu den kasta batekoa zen. Brastakoekin eta hitz bortitzekin nabarmentzen ez zen gizona, egia da (ahula ere ematen zuen zenbaitetan), baina haren apal itxurako jarrera irmoak hitz bortitzenek baino gehiago esaten zuen, haren kortesia handiko seta ez zen bidea ahanzteraino itsutzen. Pentsatzen zuena egiten zuen –koherentzia deitzen omen zaio horri–, ezin zuen bat esan eta bestea egiten zuen jendea eraman.

Apaltasunak eta itxura xaloak ez dirudite osagarri onak irmotasuna erakusteko. Egia da. Baina Martin Ugaldek apaltasuna eta irmotasuna uztartu zituen, txalo errazen bila ez dabiltzanen jenerokoa baitzen Martin Ugalde: xaloa, utopikoa, inozoa, ameslaria, sinesbera...

Hori guztia zen Martin. Beldur naiz ez ote den Martinekin bukatu kasta koherentzian oinarritu zuen belaunaldi hura.